DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Lankidetza
Cooperación

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

# Lankidetzaren Kontseilu Sektoriala – Ohiko saioa

## Consejo Sectorial de Cooperación – Sesión ordinaria

| | |
|---|---|
| **Deialdia egin duena**<br>Convoca | **Donostiako Udala**<br>Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián |
| **Data, tokia eta ordua**<br>Fecha, lugar y hora | **2021eko martxoaren 29an** / 29 de marzo de 2021<br>**Udalbatza aretoa (Udaletxea)** / Salón de Plenos (Ayuntamiento)<br>**16:00etan** / A las 16:00 horas |

## GAI ZERRENDA:

ORDEN DEL DÍA:

| | | |
|---|---|---|
| Aurkezpen erronda | 1 | Ronda de presentación. |
| Aurreko bileraren akta onartzea.<br>(ikusi erantsitako artxiboetan aktaren zirriborroa: 2020-12-15) | 2 | Aprobación del acta de la sesión anterior.<br>(ver en los archivos adjuntos el borrador del acta de 15-12-2020) |
| Batzorde iraunkorrerako 2 kide hautatzea | 3 | Elección de 2 miembros para la comisión permanente |
| 2021-2025 Lankidetza Plan Zuzendaria: kontseilukideekin hurrengo lan saioaren berri ematea eta dokumentu osoaren aurkezpena. | 4 | Plan Director de Cooperación 2021-2025: informar sobre próxima sesión de trabajo con el consejo y presentación final del documento. |
| Lankidetza arloko 2020 urteko memoriaren aurkezpena | 5 | Presentación de la Memoria del departamento de cooperación 2020 |
| Politiken Koherentzia eta GIHri buruzko lan-taldearen aurrerapenei buruzko informazioa | 6 | Información sobre los avances del grupo de trabajo de Coherencia de Políticas y ODS |
| Hainbat informazio<br>• Diru-laguntzen deialdia<br>• Larrialdietarako eta ekintza humanitarioetarako laguntzak 2021<br>• Udal aurrekontua<br>• Partaidetzazko aurrekontuak | 7 | Información variada<br>• Convocatoria de subvenciones<br>• Ayudas de emergencia y acción humanitaria 2021<br>• Presupuesto municipal<br>• Presupuestos participativos |
| Eskaerak eta galderak. | 8 | Ruegos y preguntas. |
| Datozen ekitaldiei buruzko informazioa. | 9 | Información sobre próximas actividades |

10740n XVII

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Lankidetza
Cooperación

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

## BILERAN PARTE HARTU DUTE:
## HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

| | |
|---|---|
| **KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA**<br>PRESIDENCIA DEL CONSEJO | **PSE-EE - Berdintasuneko, Elkartasuneko eta Eskubide Zibiletako zinegotzi ordezkaria**<br>PSE-EE - Concejala delegada de Igualdad, Solidaridad y Derechos Civiles |
| **TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK**<br>REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS | • EH-BILDU<br>• ELKARREKIN<br>• PP<br>• PSE |
| **ELKARTEAK, HERRITARRAK, GARRANTZI BEREZIA DUTEN GIZARTE TALDEAK**<br>ASOCIACIONES, CIUDADANO/AS, COLECTIVOS DE ESPECIAL RELEVANCIA SOCIAL | • ADSIS<br>• ALBOAN<br>• BAKEA ETA ELKARTASUNA EUSKADI<br>• BAKERAKO LANKIDETZA BATZARRA-ACPP<br>• CEAR-EUSKADI<br>• ENRAIZA DERECHOS<br>• ETIOPIAUTOPIA TIKAL<br>• HAURRALDE FUNDAZIOA<br>• INTERED<br>• LANKDIETZARAKO INGENIARITZA (IC-LI)<br>• LUMALTIK<br>• MEDICUS MUNDI<br>• MUGARIK GABE<br>• MUGEN GAINETIK<br>• MUNDUBAT<br>• NAZIOARTEKO ELKARTASUNA – S.I.<br>• PROYDE-PROEGA<br>• SAHARAKO LAGUNEN ELKARTEA<br>• SETEM<br>• SODEPAZ<br>• TAU FUNDAZIOA<br>• UNICEF<br>• EUSKADIKO GGKEEN KOORDINAKUNDEA |
| **ETORRI EZ DIRELAKO DESENKUSATU DIRA**<br>EXCUSARON SU ASISTENCIA | • BRIGADAS INTERN. DE PAZ<br>• UNRWA EUSKADI |

10740n XVII

| | |
|---|---|
| **UDAL TEKNIKARIAK**<br>PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL | **Kontseiluaren Idazkaritza. Lankidetza teknikaria**<br>Secretaría del Consejo. Técnica de Cooperación<br>**Hezkuntzaren eta Gizarte Sustapenaren Zerbitzuaren burua**<br>Jefe del Servicio de Educación y Promoción Social<br>**Lankidetza Ataleko burua**<br>Jefa del negociado de Cooperación |
| **PARTAIDETZAREN DATUAK**<br>DATOS DE PARTICIPACIÓN | Lankidetzako Kontseilu sektorialeko 29 kide; horiez gain, Udaleko 3 ordezkari tekniko (2 emakumezko eta gizonezko 1).<br><br>• **Emakumezkoak /** Mujeres = **18**<br>• **Gizonezkoak /** Hombres = **11**<br><br>29 personas integrantes del Consejo Sectorial de Cooperación, además del personal técnico municipal: 3 personas (2 mujeres y 1 hombre). |
| **IDAZKARITZA:**<br>SECRETARÍA DEL CONSEJO: | **Lankidetza** - Cooperación:<br>Aiete Jauregia, Aiete pasealekua, 65 943481471<br>lankidetza@donostia.eus |

10740n XVII

## SAIOAREN BILAKAERA:
## DESARROLLO DE LA SESIÓN:

| | |
|---|---|
| **1.- Aurkezpen erronda.**<br><br>Mikrofonoa daukaten parte-hartzaileak aurkeztu egiten dira. | **1.- Ronda de presentación.**<br><br>Las personas asistentes que disponen de micrófono se presentan. |
| **2.- Aurreko bileraren akta onartzea.**<br><br>Aurreko osoko bilkuraren akta onartu da, aldaketarik gabe. | **2.- Aprobación del acta de la sesión anterior.**<br><br>Se aprueba el acta del pleno anterior sin cambios. |
| **3.- Batzorde iraunkorrerako 2 kide hautatzea.**<br><br>Azken saioaren ondoren, UNICEF eta Nazioarteko Elkartasunaren ordezkariak aurkeztu ziren Batzorde Iraunkorrean hutsik dauden bokaletarako hautagai gisa. Bilera horretan, Mugarik gabek ere bere hautagaitza aurkeztu zuen. Hautagaiak postu baino gehiago daudela ikusita, | **3.- Elección de 2 miembros para la comisión permanente.**<br><br>Tras la última sesión, las representantes de Unicef y Solidaridad Internacional se habían presentado como candidatas para las vocales vacantes de la Comisión Permanente. En esta sesión Mugarik Gabe también presenta su candidatura. En vista de que hay más candidaturas que puestos, |

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

| | |
|---|---|
| Unicefek berea erretiratu du, izan ere, hainbat urtez egon ziren Batzordean, eta erantzukizun-ariketa bat egiteagatik aurkeztu zen.<br><br>GGKEen Koordinakundeko ordezkariaren postuari dagokionez, Bakea eta Elkartasuna geratzen dira oraindik ere, Mugarik Gabe erakundearen laguntzarekin, haren ordezkari berria baita. | Unicef retira la suya, ya que ya estuvieron en la Comisión durante varios años, y se presentaba por hacer un ejercicio de responsabilidad.<br><br>Respecto al puesto de representante de la Coordinadora de ONGD, siguen quedándose Paz y Solidaridad, con el apoyo de Mugarik Gabe ya que es nuevo su representante. |
| **4.- 2021-2025 Lankidetza Plan Zuzendaria: kontseilukideekin hurrengo lan saioaren berri ematea eta dokumentu osoaren aurkezpena.**<br><br>Zinegotziak azaldu duenez, asmoa Plana saio honetan aurkeztea zen, baina aurreikusitakoa baino denbora gehiago behar izan da. Erakundeek, gainera, Planari ekarpen gehiago egiteko beste saio bat nahi zutela esan zuten. Horregatik guztiagatik, Planaren zirriborroa martxoaren 31n bidaltzea proposatzen da, eta apirilaren amaierarako lan-saio on line bat egitea proposatuko da, parte hartu nahi duten Kontseiluko kideekin. Ondoren, behin betiko dokumentua egingo da, maiatzean ezohiko kontseilu batean aurkeztuko da, eta gero Tokiko Gobernu Batzarrean onartuko da. | **4.- Plan Director de Cooperación 2021-2025: informar sobre próxima sesión de trabajo con el consejo y presentación final del documento.**<br><br>La concejala explica que la intención era presentar el Plan en esta sesión, pero ha hecho falta más tiempo del previsto. Las entidades, además, dijeron que querían otra sesión para hacer más aportaciones al Plan. Por todo ello, se propone enviar el 31 de marzo el borrador del Plan, y se propondrá para finales de abril la sesión de trabajo pendiente, de manera on line, con las integrantes del Consejo que quieran participar. Después, se elaborará el documento definitivo, que se presentará en un Consejo extraordinario en mayo, y se aprobará posteriormente en Junta de Gobierno Local. |
| **5.- Lankidetza arloko 2020 urteko memoriaren aurkezpena.**<br><br>Aurreko urteetan bezala, iazko memoria sailaren webgunean jarri da. Kontseiluan ez aurkeztea erabaki da, haren iraupena ez luzatzeko.<br><br>Webgunean memoria eskuratzeko: MEMORIA. | **5.- Presentación de la Memoria del departamento de cooperación 2020.**<br><br>Como en años anteriores, se ha colgado la memoria del año pasado en la web del departamento. Se ha optado por no presentarla en el Consejo, para no alargar el tiempo de duración del mismo.<br><br>Para acceder a la memoria en la web: MEMORIA |

10740n XVII

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

## 6.- Politiken Koherentzia eta GIHri buruzko lan-taldearen aurrerapenei buruzko informazioa.

Planari ekarpenak egiteko orduan, zaila zen politiken koherentzien ekintzak zehaztea. Horrela, erabaki zen gauza orokorragoak jartzea eta gero urteko plan operatiboetan zehaztea. Taldeak biltzen jarraitu behar du, zehazten eta jarraipena egiten joateko.

Setemeko ordezkariak galdetu du zein den aurreikusitako kronograma. Lehenengo urtea diagnostikatzeko eta ezagutzeko izango litzateke, eta hurrengoak, neurriak hartzeko. Setemek informazioa jasotzea eskatu du, lantaldean parte hartzera animatzen diren erabakitzeko.

Lantaldeko kideek esan dute zirriborroa jasotzen dutenean planteatuko dutela zer ekarpen egin, eta gero ikusiko dela zer egin dezakeen taldeak eta nola antolatu. Proposatutako adierazle-multzoa zabalegia zen, eta lehenetsi eta zehaztu egin behar da. Udalak ez du laguntzarik beste sail batzuekin zeharka funtzionatzeko, baina bai beste sail batzuk inplikatuko dituzten ekarpen edo proiektu zehatzak egiteko. Aurten, ekintza zehatz horiek norekin egin zehaztea eta ikustea izan daiteke erronka bakarra.

UNICEFeko ordezkariak Euskadi Basque Country 2030 agenda gogorarazi du. Plan Zuzentzailean sartu behar dela agenda hori, eta erreferentzia-puntua izan behar duela.

Zinegotziak gogorarazi du proposamena martxoaren 31n bidaliko den dokumentuan dagoela.

## 6.- Información sobre los avances del grupo de trabajo de Coherencia de Políticas y ODS.

A la hora de hacer aportaciones al Plan, se hacía difícil concretar las acciones de coherencia de políticas. Se decidió, así, poner cosas más generales y luego ir concretando en los planes operativos anuales. El grupo tiene que continuar reuniéndose, para ir concretando y hacer seguimiento.

La representante de Setem pregunta cuál es el cronograma previsto. El primer año sería para diagnosticar y conocer, y los siguientes, para tomar medidas. Setem pide recibir información, para decidir si se animan a participar en el grupo de trabajo.

Integrantes del grupo de trabajo dicen que cuando reciban el borrador se plantearán qué aportaciones hacer y luego se irá viendo qué puede hacer el grupo y cómo organizarse. La batería de indicadores propuestos era demasiado amplia, y hay que priorizar y concretar. Desde el Ayuntamiento, no tenemos apoyo para funcionar con otros departamentos de forma transversal, pero sí para realizar aportaciones o proyectos concretos que impliquen a otros departamentos. Este año el reto podría ser simplemente definir y ver con quién realizar esas acciones concretas.

La representante de Unicef recuerda la agenda Euskadi Basque Country 2030, que el Plan Director debe incorporar, y debe ser el punto de referencia.

La concejala recuerda que la propuesta está en el documento que se va a enviar el 31 de marzo.

10740n XVII

## 7.- Hainbat informazio.

### Diru-laguntzen deialdia

Eskabideak aurkezteko epea martxoaren 22an amaitu zen. Lankidetzaren ildoan, 23 proiektu aurkeztu dira, iaz baino dezente gutxiago, gure ustez, munduko osasun-egoera eta krisialdia direla eta. GEH lerroan 22 proiektu, beste urte batzuetako kopuruaren antzekoa. Aurten kronograma bat egin da kontabilitate-sailarekin, administrazio-prozeduran atzerapenik egon ez dadin. Zuzenketak egiteko epea Aste Santuaren ondoren irekiko da.

### Larrialdietarako eta ekintza humanitarioetarako laguntzak 2021

Aurten, iritsi ziren lehen 3 proiektuak finantzatu ziren:

- Giza eskubideen babesa Palestinan (ACPP);
- Eskola-gosari programa Saharako kanpamenduetan (Mundubat);
- Eta Covidek Siriako eremu ahulenetan (UNICEF) duen eragina arintzeko neurriak.

### Udal aurrekontua

Martxoaren 31n izango da aurrekontuen udal osoko bilkura, eta hor egongo da 2021erako behin betiko aurrekontua. Une honetan dagoen aurrekontu-proiektua 1.802.000 €-koa da, hau da, %1,92 murriztu da 2020arekin alderatuta. Aurreko urtean, diru-laguntzen zenbatekoa mantendu bazen ere, gainerako kapituluek ia 60.000 euroko beherakada izan zuten.

Jaitsiera Donostia Mundu Artean eta Oporrak Bakean egingo dute, haur

## 7.- Informaciones varias.

### Convocatoria de subvenciones

El plazo de presentación de solicitudes finalizó el día 22 de marzo. En la línea de Cooperación se han presentado 23 proyectos, bastantes menos que el año pasado, entendemos que por la situación sanitaria y de crisis mundial. En EpTS 22, un número similar a otros años. Este año se ha elaborado un cronograma con el departamento de contabilidad para que no haya retrasos en el procedimiento administrativo. El plazo de subsanaciones se abrirá después de Semana Santa.

### Ayudas de emergencia y acción humanitaria 2021

Este año se financiaron los 3 primeros proyectos que llegaron:

- Protección de Derechos Humanos en Palestina (ACPP);
- programa de desayunos escolares en los campamentos saharauis (Mundubat);
- y medidas para aliviar el impacto de la Covid en las zonas más vulnerables de Siria (Unicef).

### Presupuesto municipal

El 31 de marzo es el Pleno municipal de presupuestos y ahí se tendrá el presupuesto definitivo para 2021. El proyecto de presupuesto que se tiene en este momento asciende a 1.802.000€, lo que es una disminución del 1,92% con respecto a 2020. El año anterior, aunque se mantuvo el importe de las subvenciones, el resto de capítulos sufrieron un descenso de casi 60.000€.

La bajada se va a realizar en Donostia Mundu Artean, y en Oporrak Bakean, ya

10740n XVII

sahararrak ezin izango baitira etorri. Nolanahi ere, Saharako haurrei laguntzeko ekimenak babesten saiatuko dira, konpentsatzeko. Zinegotziaren esanetan, diru-laguntzak mantendu egingo dira, iaz bezala.

que los niños y niñas saharauis no van a poder venir. De todos modos se intentará apoyar iniciativas de apoyo a la infancia saharui para compensar. La concejala destaca que las subvenciones concurrentes se mantienen, como el año pasado.

Mugen Gainetik elkarteak gogorarazi du portzentajean finkatzen direla, ez hainbeste guztizko kopuruetan. Eta, kasu honetan, aurrekontu orokorra gehiago jaisten da, eta, beraz, lankidetzaren ehunekoa igo egiten da. Zinegotziak baietz esan du, zoritxarrez aurrekontu orokorra 35 milioi euro gutxitu dela.

Mugen Gainetik recuerda que se fijan en el porcentaje, no tanto en cantidades totales. Y en este caso, el presupuesto general baja más, por lo que el porcentaje de cooperación sube. La concejala dice que sí, que desgraciadamente el presupuesto general ha disminuido en 35 millones de euros.

## Partaidetzazko aurrekontuak

Atzo amaitu zen aurrekontu partehartzaileei proposamenak aurkezteko epea, eta laster bozkatu ahal izango dira jasotako proposamenak.

## Presupuestos participativos

Ayer finalizó el periodo para presentar propuestas a los presupuestos participativos, y en breve se podrán votar las propuestas recibidas.

## 8.- Eskaerak eta galderak.

SEADen Lagunen Elkarteko ordezkaria bilera egiteko baldintzez kexatu da; izan ere, konfirmatu ez zuten pertsonak atzeko aldean eseri behar izan dira, itzultzeko aukerarik eduki gabe eta besteek esandakoa behar bezala ulertu gabe.

Zinegotziak erantzun du osoko bilkuren aretoaren gehienezko edukiera 48 lagunekoa den arren, egungo bilera-formatuan 25 lagunentzako mikrofonoa baino ez dagoela, eta ezin direla partekatu, ezta mikrofono bat eskuz esku pasatu ere. Horregatik eskatu zen baieztapena. Audio-sistema berria da, eta atzetik entzun beharko litzateke.

Etiopia Utopiaren ordezkaria ere bat dator

## 8.- Ruegos y preguntas.

La representarte de la Asociación de Amigos y Amigas de la RASD se queja de las condiciones en que se ha realizado la reunión, ya que las personas que no habían confirmado se han tenido que sentar en la parte de atrás, sin poder acceder a la traducción ni entender correctamente lo que se decía.

La concejala responde que aunque el aforo máximo del salón de Plenos es de 48 personas, en el actual formato de reuníon sólo hay micrófono para 25 personas, y no se pueden compartir, ni pasar un micrófono de mano en mano. Por eso se pidió confirmación. El sistema de audio es nuevo, y se supone que se debería oír desde atrás.

La representante de Etiopia Utopia coincide

10740n XVII

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Lankidetza
Cooperación

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

| | |
|---|---|
| ondo ulertzen ez zela adieraziz. Interedeko ordezkariak hurrengorako proposatu du, hitza hartzen dutenek hobeto hitz egiten saiatu behar dutela. | en que no se entendía bien. La representante de Intered propone la próxima vez, quienes tomen la palabra tienen que intentar vocalizar mejor. |
| **9.- Datozen ekitaldiei buruzko informazioa.**<br><br>Mugarik Gabeko ordezkariak ekainean EHUko Udako Ikastaroen barruan egingo duen ikastaro baten berri eman du: "Oraindik garaiz gaude. Zergatik eta nola ibili bizitza jasangarrietarantz ", gaztelaniaz, aurrez aurreko eta online formatu mistoarekin. | **9.- Información sobre próximas actividades.**<br><br>La representante de Mugarik Gabe informa sobre un curso que realizará en el marco de los Cursos de Verano de la EHU, en junio: "Todavía estamos a tiempo. Por qué y cómo caminar hacia unas vidas sostenibles", en castellano, y con formato mixto presencial y on line. |
| Beste gairik ez dagoenez, bilera 17:05ean amaitu da. | No habiendo más temas que tratar, finaliza la reunión a las 17:05. |

10740n XVII